


MILAKA UME **MUTURREKO POBREZIA** ETA
GOSETIK ALDENTZEKO BORROKATZEN ARI DIRA

BATU ZAITEZ ALDAKETARAKO



GH kanpaina 2018-2019
HEZKUNTZA EZ-FORMALA



Sarrera eta justifikazioa

2000. urtean, Nazio Batuen Erakundeak Milurteko Garapen Helburuak onartu zituen, eta 2015erako helburuen artean, goserik ez izateko eta pobrezia desagerrarazteko 8 xede ezarri zituen. 2015ean, eta helburu horietako bat bera ere ez zela bete ikustean, Nazio Batuen Erakundeak Garapen Iraunkorrerako Helburuak onartu zituen. Oraingo honetan, 17 xede dira, 2030. urtea baino lehen betetzekoak, eta planeta zuzenago eta iraunkorrago bat lortzeko lan egin nahi da. Zeregin hori ez da soilik gobernuena eta enpresena, gizarte zibilaren zeregina ere bada. Horretarako, prozesu honetan oinarritutako dinamika bat proposatzen da: informazioa biltzea - gogoeta egitea - ekitea. Kasu honetan, jarduerak, funtsean, lehenengo bi helburuak aurkezten dizkigute: Pobrezia desagerraraztea, eta goserik ez izatea.

Helburu nagusia

Munduan dagoen desorekari eta goseari aurre egiteko sentiberatzea eta motibatzea.


Helburu espezifikoak

- Desorekaren eta gosearen aurkako borrokan azken urteotan egin diren aurrerapenak balioestea, eta gaur eguneko errealitatea ezagutzea.
- Garapen Iraunkorrerako Helburuak zer diren eta zer lortu nahi duten ezagutzea.
- Garapen Iraunkorrerako Helburuak lortzen laguntzeko konpromisoak hartzea, bereziki, 1. GIHa eta 2. GIHa.

Denboralizazioa

Saio bat (50 minutu gutxi gorabehera)





JARDUERA: Noten buletina

AURREIKUSITAKO DENBORA: 25 minutu


Saioaren hasieran, jardueraren dinamizatzailleak azalduko die Milurteko Helburuak Nazio Batuek 2000. urterako gosea eta desoreka desagerrarazteko ezarritako 8 xede direla. 2015. urterako lortzea zen helburua. Laguntzeko, *1. irudia* proiektu daiteke.



Ondoren, taldeak osatuko dituzte, eta MGHen betetze-maila “ebalatu” beharko dutela azalduko zaie; zehazki, 1. MGHaren betetze-maila, “muturreko pobrezia desagerraraztea eta goserik ez izatea” xede zuen helburuarena. Horretarako, 10 minutu emango zaizkie, helburu hori bete den edo ez zehazteko, Interneten datuak bila ditzaten.

Ikertu ondoren eta MGH hori bete den edo ez kontuan hartuta, nota jarri beharko dute (gutxiegi, gaitundia, bikain, oso ongi), eta nota hori zergatik jarri duten azalduko dute; horrez gain, hurrengo ebaluazioan nota hobea lortzeko proposamenak pentsatuko dituzte. Epaimahai batean baleude bezala, talde bakoitzaren kalifikazioak talde handian bateratuko dira.





2. JARDUERA: Hobetu beharra dago


AURREIKUSITAKO DENBORA: 15 minutu

1. MGHari buruzko kalifikazioak bateratu ondoren, gosearen eta pobrezia-aren aukako borrokan aurrerapenik ez delako egin horren arduradunak bilatu beharra dagoela esango zaie. Ondorengo bideoa ikusiko dugu:

<https://www.youtube.com/watch?v=owaMKKJs-y8>

1. jarduerako talde beretan bilduta, bideoan azaltzen den galdera egiteko eskatuko zaie: *Nolatan ez daude espetxean horrenbeste heriotza eragiten dituen espekulazio horren erantzuleak? Zeintzuk dira munduan dagoen gosearen erantzuleak? Badugu guk zerikusirik?* 10 minutu emango zaizkie, gaiaren inguruan eztabaidatzeko (behar badute, informazioa bila dezakete Interneten) eta taldeko ondorioa ateratzeko. Bozeramailea izendatuko da, eta debatea egingo da taldeen artean.





3. JARDUERA: Guk ere badugu zerbait esateko

AURREIKUSITAKO DENBORA: 10 minutu

Ondorengo irudia proiektatuko da, eta zer helarazten dien azaltzeko eskatuko zaie parte-hartzaileei.



Gero, desorekaren eta gosearen aurkako borrokan aurrerapenik ez dela egin ikusi ondoren eta egoera horren erantzuleak zeintzuk diren eztabaidatu ondoren, guk gai horren inguruan zer egin dezakegun planteatzeko eskatuko zaie. Talde bakoitzak konpromiso desberdin eta original bat aurkeztu beharko du.

JARDUERAREN EBALUAZIOA

Jarduera ebaluatu nahi izanez gero, ikaslearen parte-hartzea eta inplikazioa aztertzea proposatzen dugu, hiru item hauen bidez:

ITEMAK	Bi	OO	O	N	EN
• Jarrera egokia erakutsi du, bai banaka bai taldean lan egitean?					
• Interesa agertu du jardueretan?					
• Inplikatu da jardueretan?					

